



EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOKO PLAN OROKORRA 2014- 2019

2019ko ebaluazioa

2020/03/20



AURKIBIDEA

SARRERA	3
JARDUERA NABARMENAK	6
1. ardatza. Herritarrentzako zerbitzua	7
2. Ardatza. Plangintza	10
3. ardatza. Koordinazioa	13
4. ardatza. Prestakuntza	17
5. ardatza. Komunikazioa	21
ARRISKUAK EUSKADIN	24
JARRAIPENA ETA BALIOESPENA	33
1. ardatza. Herritarrentzako zerbitzua	34
2. ardatza. Plangintza	39
3. ardatza. Koordinazioa	45
4. ardatza. Prestakuntza	50
5. ardatza. Komunikazioa	54



SARRERA

Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorraren helburu nagusia pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren segurtasuna bermatzea da.

Hori lortzeko, pertsonen eskubideak eta askatasunak bete-betean erabili ahal izateko eta beren bizitza eta jardura bakezko eta gizarte-ongizate eta -kohesiozko eremuetan egin ahal izateko behar diren baldintzak sustatu eta eragozpenak kendu behar ditu plan honek, eta, horretarako, ahal dela, pertsonen eskubideak, askatasuna eta segurtasuna eta haien ondasunak eta ondare kolektiboak asaldatzeko arriskuak murriztu behar ditu.

Europar Batasunak aldarrikatutako estrategian bilduriko printzipioen eta helburuen isla izateko jomuga du Segurtasun Estrategiak. Hala, EBren estrategiak konpromiso irmoa hartzen du aurrera egiteko askatasun, segurtasun eta justiziazko eremu bat sortzeko xedean, aurre eginez etengabe aldatzen ari den mundu honetako arriskuei. Konpromiso horrek hainbat erronkari aurre egitera garamatza, hala nola eskubideak eta askatasunak babestera, segurtasunik ezaren arrazoiei aurre egitera, prebentzioa eta aurrea hartzea lehenestera, babes publikoan eginkizunen bat betetzen duten sektore guztiak inplikatu.

Horregatik guztiagatik, plana sailen esparrutik harago doa, gobernu-plan bat baita; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren arlo guztiei ez ezik, gainerako erakundeek ere eragiten dien plan gisa diseinatuta dago. Horrela, segurtasun-sistema integral bat ezarri nahi da; alegia, sektore askotara hedatzen den sistema zabal eta osoa, barnean har ditzan herritarren segurtasuna, segurtasun zibila, bide-segurtasuna eta beste esparru batzuetako segurtasuna —hala nola jendaurreko ikuskizunetakoa eta jolas-jardueretakoa—. Horren guztiaren helburua da egungo eta etorkizuneko arriskuei aurre egitea —barnean hartuta bai hondamendi naturalak bai gizakiak sorturikoak— zuzeneko eragina duten heinean bizitzan, segurtasunean eta herritarren ongizatean.

Segurtasun publikoko sistemaren printzipioen artean honako hauek daude: arriskuen prebentzioa, herritarren babesa —herritarren beharrezan berri izatean oinarritua— eta zerbitzu publiko beharrezan horietara egokitzea, arazoak detektatzea eta identifikatzea, erantzuna prestatzea eta emaitzak ebaluatzea. Erresilientzia indartzen da horrela; hau da, sistema batek eta haren osagaiak hondamendien, krisien edo bestelako gertaeren ondorioak modu egoki eta eraginkorrean aurreikusteko, arintzeko eta egokitzeko edo ondorio horietatik lehengoratzeko duten gaitasuna handitzen da. Erresilientzia-gaitasuna erakundeetan garatu behar da, gizartearen maila eta sektore guztietan.

Sistemen ikuspegia hartzea eta dimentsio anitzeko soluzioak identifikatzea dira erresilientzia garatzeko funtsezko elementuak. Planak erresilientzia sartu du printzipio estrategiko gisa, erakundeak eta herritarrak kontrako edozein gertakariren aurrean prest egon daitezkeen lortze aldera. Ikuspegi horren ondorioz, Segurtasun Planaren oraintsuko bilakaerak eta historiak etengabe jarraitu du hobetzen, eta, horrenbestez, 2014an ezarri ziren helburuetako ugari bete ditu. Segurtasun-sistema integrala da Planaren segurtasun-helburuak betetzeko eta lotutako sail eta erakunde guztiak lerrokatzeko oinarria. Halaber, segurtasun-sistema integralak segurtasun-politika bati bide ematen dio, hiru oinarri estrategiko hauetan oinarritzen den segurtasun-politika bati, hain zuzen:

1. Herritarrengandik hurbilago egotea bultzatzea, hurbiltasun hori izanik sistema osoaren ardatza.
2. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak modu efikaz eta efizienteagoan erabiltzea.
3. Elkarlan handiagoa egotea eragile sozial, instituzional eta polizial guztien artean.



Ondorioz, arestian zerrendaturiko hiru oinarriek Planean adierazitako ardatz eta ildo estrategikoetarako funtsa osatzen dute, eta taula honetan ikus daitezke:

ARDATZAK

ILDO ESTRATEGIKOAK

1. ARDATZA

HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

- 1.1 Ertzaintzak aintzateste sozial handia lortzea, zerbitzuaren hurbiltasun eta efikaziagatik¹
- 1.2 Prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzua eskaintzea, inteligentzia eta ikerketa kriminalaren laguntzarekin
- 1.3 Herritarrentzako arreta hobetzea, baita horien establezimenduetako segurtasun-baldintzak ere
- 1.4 Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalen segurtasuna hobetzea
- 1.5 Indarkeria, arrazakeria- eta xenofobia-adierazpenak eta, oro har, intolerantzia-jokabideak desagerraraztea kirolean
- 1.6 Kanpoko eragileekin lankidetzan eta koordinazioan aritzea
- 1.7 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea
- 1.8 Azpiegitura kritikoaren eta funtsezko zerbitzuen babesa bermatzea
- 1.9 Administrazio elektronikoa

2. ARDATZA

PLANGINTZA

- 2.1 Ertzaintzak aintzateste sozial handia lortzea, zerbitzuaren hurbiltasun eta efikaziagatik
- 2.2 Prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzua eskaintzea, inteligentzia eta ikerketa kriminal efizientean babestua
- 2.3 Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta beste batzuekiko lankidetzatxertatzea, bere erantzuna behar berrietara egokitzeko
- 2.4 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa bermatzea
- 2.5 Babes zibilaren eta larrialdien arloko plangintza eguneratzea
- 2.6 Euskadiko Joko Sistemaren ikuspegi integrala izatea
- 2.7 Datuak eta informazioa jasotzea eta trukitzea
- 2.8 Euskadiko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa
- 2.9 Ertzaintzaren baliabide materialak modernizatzea
- 2.10 Herritarren alerta- eta autobabes-sistema indartzea.

3. ARDATZA

KOORDINAZIOA

- 3.1 Prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzua eskaintzea, inteligentzia eta ikerketa kriminal efizientean babestua
- 3.2 Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta beste batzuekiko lankidetzatxertatzea, bere erantzuna behar berrietara egokitzeko
- 3.3 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa bermatzea
- 3.4 Larrialdiei Aurre Egiteko EAEko Sistemaren zerbitzuen eta sistema ahalbidetzen duten erreminten koordinazioa hobetzea
- 3.5 EAEko Polizia Koordinatzeko Sistema bat ezartzea (Ertzaintza eta udaltzaingoak)
- 3.6 Beste administrazio batzuekiko osagarritasuna bermatzea
- 3.7 Ekinbide – Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritarren Ekimenen Bulegoa antolatzea eta kudeatzea
- 3.8 Segurtasun Publikoaren Estatistika Organo Espezifikoa kudeatzea
- 3.9 Hainbat erakunderi dagozkien gertakari konplexuetan espezializatutako taldeen jarduteko eta esku hartzeko prozedurak homogeneizatzea.

4. ARDATZA

PRESTAKUNTZA

- 4.1 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa bermatzea
- 4.2 Larrialdien eta meteorologiaren arloko prestakuntza eskaintzea bai herritarrentzat bai Larrialdiei Aurre Egiteko EAEko Sistemaren zerbitzuetarako
- 4.3 Barne- eta kanpo-prestakuntza ematea jokoaren eta ikuskizunen arloan
- 4.4 Hezkuntza eta prestakuntza



ARDATZAK

ILDO ESTRATEGIKOAK

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

- 5.1 Ertzaintzak aintzateste sozial handia lortzea, zerbitzuaren hurbiltasun eta efikaziagatik
- 5.2 Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta beste batzuekiko lankidetzatxertatzea, bere erantzuna behar berrietara egokitzeko
- 5.3 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa bermatzea
- 5.4 Herritarrekin komunikatzeko sistema eta prozedurak eguneratzea
- 5.5 Salaketak eta baimenak izapidetzea
- 5.6 Herritarrentzako informazioa

IRUDIA1: EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOKO PLAN OROKORRAREN ARDATZAK ETA ILDOAK



JARDUERA NABARMENAK

la bost urte igaro dira Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra landu zenetik, eta behin XI. legegintzaldia hasi ondoren, zeinak segurtasun-arloko helburu estrategiko berriak eransten dituen gobernu-programa bat aurkeztu baitu, Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra 2019an izandako jardunaren urteko jarraipena eta ebaluazioa egin da, urtean horretan egindako ekintzak eta betetako helburuak jasotzeko.

Segurtasun Saila osatzen duten zuzendaritzek plan honetan jasotako oinarri estrategikoetan funtsatuta lan egin dute aldi honetan. Planaren garapena eta ekintzak bost ardatzen inguruan islatu dira. Ondoren, oinarri estrategikoak eta ardatzak irudikatu dira:

ONARRI ESTRATEGIKOAK

1. ONARRIA

Herritarrengandik hurbilago egotea bultzatzea, hurbiltasun hori izanik sistema osoaren ardatza.

2. ONARRIA

Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak modu efikaz eta efizienteagoan erabiltzea

3. ONARRIA

Elkarlan handiagoa egotea eragile sozial, instituzional eta polizial guztien artean

ARDATZAK

HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

PLANGINTZA

KOORDINAZIOA

PRESTAKUNTZA

KOMUNIKAZIOA

Zuzendaritzen lan-dinamika aipaturiko bost ardatzen arabera egituratu da. Jarraian, egindako lana azaltzen da.



1. ARDATZA. HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA



ERTZAINTZAREN ZUZENDARITZA

2019an onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruko Legearen bidez, sendotu egin nahi da zerbitzu polizialek gizarterekin duten lotura, gizarte ireki, plural eta elebidun bat osatzeko, zeinetan gizonezkoek eta emakumezkoek eskubide berdinak baitituzte.

2019ko alderdi azpimarragarri bat da emakumerik ez dela hil genero-indarkeriaren eraginez, eta hori ez zen sekula gertatu orain dela 17 urte bikotekideen edo bikotekide ohien esku EAEn hildako emakumeak zenbatzen hasi zirenez geroztik. EAeko gizarteko maila guztiei eragiten dien gaitz horren aurkako borrokari dagokionez, Ertzaintzak ahalegin handia egin du, etengabea; izan ere, biktimak babestea eta balizko kasuak prebenitzea da Ertzaintzaren kezka eta zeregin nagusia. Hori guztia, emakumearen aurkako indarkeriak desagerrarazteko lan egiten duten gainerako instituzio eta erakundeekin lankidetzan arituta. 2019an zehar, Ertzaintzak eta udaltzaingoen etxeko indarkeria eta/edo genero-indarkeria modu partekatuan tratatzeko EBA proiektu estrategikoa abiarazi da. Informazioa partekatzeko eta kudeatzeko, plataforma informatiko bat sortu da, eta asmoa da plataforma hori beste erakunde batzuen eskura ere ipintzea.

Gertakari kritikoei eta aparteko gorabehera bortitzei dagokienez, horrelako jazoeretan sor daitezkeen egoerak testuinguruan kokatzen laguntzen duten jarduketak-simulazioak egitea bultzatu da. Ertzaintzaren unitate guztietako baliabideek, beste erakunde publiko eta pribatu batzuetako langile eta bitartekoekin batera, 2019ko urtarrilaren 18an Gasteizko Boulevard merkataritza-gunean aparteko gorabehera bortitz bat simulatu zuten: arma eta lehergailuen bidez biktima ugari eragiten dituen eraso terrorista jihadistak baten simulazioa. Ateratako ondorioei esker, dagozkion analisiak eta balorazioak egin ahal izan dira, egokitzen jo diren aldaketak sartu dira prozedura batzuetan eta Ertzaintzako agenteei jarduteko moduak ezagutarazi zaizkie.

Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren aurkako plana finkapen- eta hazkunde-fasean dago ertzain-etxe guztietan. 2018an erregistratutako datuekin, Gizaki-salerosketaren aurkako Planaren Batzorde Egonkorra (CETSH) salerosketaren fenomenoak EAEn duen eraginari buruzko mapa osatu du. Plana Ertzaintza osoan ezartzearen emaitzak azaldu zaizkie Segurtasuneko sailburuaren gobernu-taldeari, Ertzaintzaren Zuzendaritza Kontseiluari eta Euskadiko Salerosketa Mahaiko kideei (EMAKUNDE da erakunde horren buru). Batzordeak egindako azterlanak, halaber, Planaren ezarpena dela-eta abian jarri diren 122 polizia-ikerketak ere aipatzen ditu, baita delitu tipologia horren aurkako borroka hobetzeko jomuga duten gogoeta batzuk ere.

Bestalde, BAIETZ tresna analitikoaren helburuak hauek dira: batetik, delitu-analisia sustatzea Ertzaintza osoan (delitu mota guztiak aitzat hartuta), eta, horretarako, adimen-maila bakoitzean erabakiak hartzeko orduan informazio erabilgarria sortzeko oinarritzko tresnak garatzea; bigarrenik, aztertutako datuetan kalitate-estandarrekin laguntzea; eta hirugarrenik, kudeaketa-eredua optimizatzea segurtasun publikoko ekimenen prebentzio- eta/edo ikerketa-jardueran. BAIETZ bidez, adimen-txostenak egiteko aukera ematen da, gertaerak, kokapenak, denborak eta ezaugarri bereziak ez ezik, delitu- edo gorabehera-erregistroen arteko antzekotasunak eta arau-hausle baten delitu-jardueraren edo nortasunaren eredu baten balizko existentzia ere identifikatzen duen beste edozein inguruabar esanguratsu zehazteko eta, horrenbestez, baliabideak bideratu ahal izateko, etorkizunean gerta ez daitezen antzeko jazoerak. BAIETZ-en ikuspegi proaktibo horren



ondorioz, 2019an garapen berrietan aurrera egin da; izan ere, analisi kriminalari eta tresnaren erabileraren aurrerapen teknologikoari buruzko prestakuntza eta gaikuntza akademikoa eman da.

2019ko urriaren 2an, Bilboko ertzain-etxean, Bilboko barruti judizialean atxilotu diren eta ziegetan sartu behar dituzten pertsonen kudeaketa zentralizatu abiarazi zen; kudeaketa horrek Bizkaiko Trafikoko Lurralde Unitatea eta Basauriko, Bilboko, Erandioko, Galdakaoko eta Laudioko polizia-unitateak (partzialki) hartzen ditu eraginpean. Zentralizazio horren bidez Arartekoaren eta Europako Kontseiluaren gomendioak ezarri nahi dira, baita baliabideen efizientzia hobetzea eta eraginpeko erakundeekiko koordinazioa perfektionatzea ere, betiere kontuan hartuta atxilotutako pertsonen bizitza eta segurtasun fisiko eta psikikoa zaindu behar direla, haien eskubideak, ohorea eta duintasuna errespetatuta eta atxilotetan parte hartzen duten agenteen segurtasun fisiko, psikiko eta juridikoa bermatuta.

Ekainaren 24an, Ertzaintzak «Landa-munduari arreta» zerbitzuari buruz hausnartzeko eta zerbitzu hori aztertzeko jardunaldia egin zen Berroziko instalazioetan. Topaketa hartan nabarmendu zen zein garrantzitsua den zerbitzu hori; izan ere, batez ere adineko pertsonak bizi dira ingurune horretan, gehienak bakarrik, eta, horregatik, Ertzaintzaren presentziak eta hurbiltasunak segurtasuna ematen die.

Azkenik, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren (2018-2022) aurkezpen ofizialarekin, urrats sendoak egin nahi dira jauzi kualitatibo bat lor dadin EAEko gizartea euskaldunagoa izateko eskaerei erantzute aldera. 2019an, hizkuntza-mapak marraztu dira, eta esku hartzeko plan zehatzak ezarri, Hernaniko, Oriako, Gernikako eta Durangoko ertzain-etxeetan euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza gisa erabiltzea sustatzeko.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, herritarrentzako arreta eta establezimenduetako segurtasun-baldintzak hobetzeko xedez, 2019an arrakastaz jarraitu du indartzen herritarrengana hurbiltzeko ekimena; hala, 112 telefonoaren bidez, 807.305 deiri erantzun eta 207.658 gorabehera kudeatu ditu. Kudeatutako gertakari gehienak larrialdi medikoekin (% 25,55), bide publikoko arriskuen hautematearekin (% 22,07), pertsonak izandako istripuekin (% 15,80), trafiko-istripuekin (% 10,90) eta herritarren segurtasunarekin (% 7,47) lotuta egon ziren. Bestalde, SOS Deiak APPak 20.310 deskarga erregistratu zituen, eta horren ondorioz, 270 gorabehera kudeatu ziren; eCall sistemak, berriz, 32 larrialdi-dei sortu zituen.

2019an beste jarduera batzuk egin dira: PLEAn akreditatutako teknikari gaituentzako prestakuntza-ikastaroak, non, aurreko urtearekin alderatuta, egiaztatutako teknikariak gehitu baitziren, autobabes-planen erregistroekin batera, 2.108 teknikari akreditaturekin.

Gainera, «nahierako» sistema bat jarri da martxan, eta sistema horren bidez, herritarrek abisu-prozedura bati atxikitze aukera dute, hautatu dituzten arrisku edo eremu jakin batzuetan oinarrituta. Gaur egun, 1.684 erabiltzaile aktibo ditu sistema hark. Gainera, alderantzizko 112an (112 reverse) oinarrituriko abisu-prozedura bat lantzen jarraitzen da, arrisku jakin baten eraginpean dauden herritarrak zuzenean ohartarazteko.

EAEko herritarren artean autobabesa sustatzeari dagokionez, arrisku natural edo teknologikoei buruzko informazioaren bidez lan egiten jarraitu da (145 egun abisu, alerta eta alarmekin; 448.964 mezu elektronikoa,



eguraldi bortitzagatik edo urtegi-hustuketengatik bidalitakoak; 100.599 SMS, eguraldi bortitzagatik edo urtegi-hustuketengatik bidaliak).

Gainera, eta EAeko gizarteak autobabesarekin lotuta gauzatutako jarduerak ugaritu egin direnez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ere ekintza gehiago egin ditu arlo horretan:

- 2019an Autobabeserako EAeko Arauaren eraginpeko 1.057 establezimenduren larrialdiak kudeatzeko datu esanguratsuak inskribatu edo eguneratu ziren. Autobabes-planen erregistro orokorra.
- Halaber, 207 teknikari berri akreditatu ziren EAeko administrazioan, Autobabeserako EAeko Arauaren eraginpean dauden establezimenduen autobabes-planek ekiteko.



TRAFIKO ZUZENDARITZA

Toki-agintari eta -indarrekiko koordinazioa areagotu zuen Trafiko Zuzendaritzak; hala, ekimen horren barruan, esaterako, laguntza eman zitzaion lau udali zehatzeko eskumena har zezaten. Era berean, EAeko udalekin lankidetzan aritzeko ildo horretan, Ibarrangelu, Kanpezu eta Urretxuko bide-segurtasuneko udal-planak aurkeztu ziren, eta Bakion, Eltziegion eta Zaldibian, berriz, mugikortasun seguruko planak. Gainera, bide-segurtasunari buruzko 11 azterlan egin dira honako hauetan: Artzentales, Artziniega, Elorrio, Dima, Hermua, Araia Ikastola, Irura, Ondarroa, Arespalditza, Txorierri eta Villanañe.

Europar zeharreko errepide-sarean trafikoari buruzko informazioa trukatzeko erabaki eta ekitaldietan lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko ahaleginari ere eutsi zitzaion, eta sare horren foro eta jardueretan aktiboki parte hartu zen. Rotterdamen, Dublinen, Helsinkin eta Anberesen egindako 4 bileratan parte hartu da, eta EBk eta proiektuen idazkaritza teknikoak eskatutako txostenak egin dira.

2019an, gainera, bide-segurtasunarekin konprometitutako 30 enpresa –hainbat sektoretakoak– atxiki zaizkio, euren kudeaketa-planen bidez, Innovabide Sareari. Innovabide Sarea 2017an jarri zen martxan, *in itinere* istripuetan –pertsona bere lanpostura doala edo hartatik itzultzen ari dela izandakoetan– eta *in mission* istripuetan –pertsonak bere lana egiteko ibilgailu bat gidatzen ari dela izandakoetan– hildako pertsonen eta larriki zauritutakoen kopurua % 40 murrizteko.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak lanean jarraitu du 2019an, kirolean indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka egiteko, eragileak sentsibilizatzeko lanetan, kirol-ikuskitan, Euskal Selektzioaren partidetan, arrisku handiko partidetan eta abarretan joko «garbia» eta jarrera arduratsua sustatzeko kanpainen bidez.

Halaber, bilera bana egin da Ertzaintzarekiko eta Kirol eta Jarduera Fisikoaren Zuzendaritzarekiko lankidetzaren esparruan. Indarkeriaren aurkako EAeko Batzordearen bi bilkuratan ere parte hartu da.



2. ARDATZA. PLANGINTZA



ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA

Ertzaintzaren Zuzendaritzak aurrera egiten jarraitu du arrisku eta kasuistika espezifikoek hartzeko planak eta programak gauzatu, ebaluatu eta birformulatu.

Bereziki, aurrera egin da Islamismo Erradikalaren aurkako Plan Estrategikoaren ezarpenean eta jarraipenean, baita Azpiegitura Kritikoaren Laguntza Operatiborako Planen (LOP) eta Sexu-esplotaziorako Gizaki-salerosketaren aurkako Planaren prestakuntzan ere, zeina ertzain-etxe guztietan finkatze- eta hazkunde-fasean baitago.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren lehentasunezko ekintzetako bat sor daitezkeen arriskuei eman beharreko erantzunen plangintza egokia ezartzea da, eta horretarako, 2019an, aurreko urteetan bezala, jarduera batzuei ekin die, honako puntu hauetan laburbilduta jaso daitezkeenak:

- Zazpi urtegi-plan onetsi dira: Loiola (Barakaldo), Zulueta (Lekeitio), Laukariz (Mungia), Gartxeta (Urduña) eta Barrendiola (Legazpi).
- Amaitu da Itsasertzaren Kutsadurari Aurre Egiteko Euskadiko Larrialdi Plan Berezia (Itsasertza) onesteko prozedura.
- Istripu larri buruzko araudiari dagokionez, Gobernu Kontseiluak Zierbenan –Bizkaian– kokatutako DBA Bilbao Port enpresaren Kanpo Larrialdietarako Plana onartu zuen. Horrez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak aldeko txostena eman zien Guardian Llodio SL (Laudio), Maier S. Coop. (Ajangiz), Kem One SLU (Hernani), Tepsa (Zierbena) eta Electroquímica de Hernani enpresen planei.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak aldeko txostena eman zion Ermua eta Plentziako (Bizkaia) eta Azkoitiko (Gipuzkoa) udal-larrialdietako planak berrikusi eta eguneratzeko proposamenari. Horri esker, udal horiek badauzkate balizko arriskuei eta kasu bakoitzean eskuragarri dauden baliabideei buruzko jardura-prozedura eguneratuak jasotzen dituzten dokumentuak.



TRAFIKO ZUZENDARITZA

Trafiko Zuzendaritzaren Plan Estrategikoak bat egiten du Europako helburuekin, 2020an zirkulazio-istripuetan hildako pertsonen kopurua % 50 murrizteari dagokionez; izan ere, 2010. urtea erreferentziatzat hartuta,



2030ean larriki zauritutako pertsonen kopurua 2020koarekin alderatuta % 50 murrizteko konpromisoa hartu du. 2010ean 67 pertsona hil ziren EAEko errepideetan. 2019an, 51 hildako izan dira.

2019an, Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoaren (2015-2020) Bitarteko Ebaluazioan ezarritakoari jarraikiz, hainbat kolektibotan zirkulazio-istripuak prebenitzeko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-helburuak lantzen jarraitu da, betiere arrisku handieneko taldeei arreta berezia eskainita (txirrindulariei, motorzaleei eta oinezkoiei).

Trafiko Zuzendaritzak bide-segurtasunari buruzko 11 txosten egin zituen 2019an, eta Euskadiko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoan ezarritako eragiketa ezartzeko eta optimizatzeko zereginarekin jarraitu zuen. Ildo horren barnean, 9 aldiz aktibatu zuen Neguko Bide Plana Jarraipen eta Informazio Fasean (elur-maila 1.000 metrotik behera dagoenean). Halaber, bi alditan, Fase Operatiboa ere abiarazi behar izan zuten, elur-maila 700 metrotik behera jaitsi zelako.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

2019an, Jokoaren EAEko Behatokiak Euskadin jokoari buruzko eduki informatiboak eta analitikoak sortzeko lanari ekin dio eta, gainera, ekintza-plan bat ere sortu du joko arduratsua sustatzeko eta joko problematikoa saihesteko. Ildo honetan, hiru txosten landu dira: Jokoaren panoramika ekonomiko-enpresariala; Gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak; eta Ekintza-plana. Eraitza horiekin jokoaren plangintza berri bat egin ahalko da Euskadin.

Zehazki, Ekintza Planak, zeina egiteko Behatokia bi aldiz bildu baita eta enpresa esleipendunarekin lau lan-bilera egin baititu, lau ardatz ezartzen ditu, eta ardatz horietako azken hiruretan joko arduratsua sustatzea finkatzen da helburu gisa:

- 1. ardatza. Araudi-garapena
- 2. ardatza. Herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea
- 3. ardatza. Prestakuntza eta lankidetzatza
- 4. ardatza. Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzea

Bestalde, otsailaren 5ean, 17/2019 Dekretua –jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena– onetsi zen. Dekretu hori lantzeko, kontuan hartu dira ekarpenak egitea egokitzat jo duten toki-erakundearen alegazioak eta iradokizunak.

Halaber, joko-sistemak ikuskatzen eta homologatzen jarraitu zuen, joko-esparruei egindako ikuskapenen bidez (3.650) eta joko-makinei emandako homologazioen kopuruaren bidez (222).



SEGURTASUNA KOORDINATZEKO ZUZENDARITZA



Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzeari buruzko 15/2012 Legeak segurtasun publikoa antolatzeko markoaren ikuskera integrala du, zeinak artikulatzen baitu administrazio publikoek abian jartzen duten xedapen, prozedura, bitarteko eta baliabide sorta bat, helburu duena baldintzak sortzea eta oztopoak ezabatzea pertsonen bete-betean disfruta ditzaten beren eskubideak eta askatasunak eta posible izan dezaten bizikidetzak baketsuan, ongizatean eta gizarte kohesionatuan bizitzea, hartarako ahal den neurrian murriztuz arriskuak eta perillak, nahita edo nahi gabe gertatu ohi direnak, pertsonen eskubideei eta askatasunei dagokienez, bai eta pertsonen euren, beraien ondasunen eta ondare kolektiboaren segurtasunari dagokienez ere.

Legeak azpimarratzen duenez, segurtasun helburuak, estrategiak eta jarduera ildoak planifikatu behar dira. Planifikazio horren erpinean dugu Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra, bost urteko indarraldia duena. Planaren betetze mailaren gaineko informazioa urtero eskaintzen zaio Eusko Legebiltzarrari.

XI. legegintzaldirako aurkeztutako Gobernu Programan ezarritako segurtasun-erloto helburu estrategikoekin bat egiten du planak eta, hala, Segurtasun Sailak aurreikusitako ekintzak egikaritzeko tresna da, betiere, egungo legegintzaldirako jarritako helburuak betetze aldera.

2019ko uztailaren 4an, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua bildu zen, eta bertan aztertu ziren Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorren 2018ko jarraipena eta ebaluazioa, delinkuentzia-estatistikak eta ekainaren 27ko 7/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketarena.

2019ko abenduaren 16an berriro bildu zen Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseilua, eta bigarren bilera horretan onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko kideak hautatzeko prozedura. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketaren ekainaren 27ko 7/2019 Legean oinarrituta sortu zen, polizia-erakundeari eta Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailari dagokienez autonomia funtzionala duen kide anitzeko organo gisa, herritarrek polizia-jardueraren kontrolaren neutraltasunari eta objektibotasunari buruz duten legezkoatasuna eta objektibotasuna indartze aldera.

2019ko bigarren seihilekoan, beharrezkoak ziren lanak egin dira Segurtasun Planaren hausnarketa estrategikoa egiteko eta 2020-2025 aldirako Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra idazteko laguntza- eta euskarri-aholkularitzako zerbitzuak kontratatzeke.



3. ARDATZA. KOORDINAZIOA



ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA

Koordinazioaren eta nazioarteko koordinazioaren esparruan, Ertzaintzak 2019an hasi zituen Global Shield Network sarean sartzeko izapideak. Sare hori Estatu Batuetan sortu zen 2000ko hamarkadan, eta terrorismoaren aurkako borrokan polizien eta erakunde publiko eta pribatuen arteko aldebiko lankidetzaren sustatzea du helburu. Irailaren 11ko atentatuaren ostean New Yorkeko Poliziak sortu eta sustatu zuen, AEBn zabaldu zen lehenik, eta Europara zabaldu zen 2018an, Anberesko (Belgika) Poliziak sarearekin bat egin zuenean. Belgikako polizia-kidegoaren eta Ertzaintzaren arteko harreman bereziaren ondorioz, Ertzaintzak, Inteligentzia Bulego Nagusiaren bidez, Global Shield Network sarean sartzeko prozesua hasi zuen 2019an, eta aurreikusita dago 2020an eskubide osoko kide bihurtzea.

Beste polizia batzuekin nazioarteko aldebiko harremanak ezartzeko xedean ere aurrera egin da. Argentinako Buenos Aires probintziako Segurtasun Ministerioarekin lankidetzan aritzeko akordio bat lortu da, eta Anberesko eta Bavariako poliziekin dagoeneko berretsita dauden akordioei batu zaie.

Baliabide teknologikoei dagokienez, garrantzitsua da hauek nabarmentzea: Ertzaintzaren AKZren bilakaera teknologikoaren proiektua, bereziki, Euskarri-Ertzaintza zerbitzuen garapena; Euskarrik Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentrorako (ETKZ-CGTE) egindako hedapena, udaltzaingoei beren TETRA terminalak –Segurtasun Sailaren Enbor Sarean erregistratuta daudenak– lokalizatzeko aukera emateko web-zerbitzua hedatzea; eta udaltzaingoak Euskarrin integratzeko proiektuari hasiera ematea, interoperabilitate-pasabideen bidez, larrialdietako agenzia gisa.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

Larrialdi-egoerak modu koordinatuan kudeatzea da Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren zeregin nagusietako bat. Horrela jarraitu du lanean toki-agintariekin, Ermua, Plentzia eta Azkoitiko larrialdi-planak gainbegiratzuz, toki-erakundeekiko harremana sustatzeko, babes zibilaren eta larrialdien alorreko araudiaren inguruan aholkatzeko eta araudi hori ikuskatu eta interpretatzeko.

Gainera, simulazioak koordinatzen jarraitu du, eta ekitaldi berezietan parte hartu du, gero eta garrantzi eta konplexutasun handiagoa baitute halakoek gure lurraldean: Gasteizko Lauko Finala, UEFA EURO 2020 eta mugan G7a planifikatzea.

Behera etorritako egituretan eta horren antzeko ezbeharretan erreskateak egiteko –USAR– diziplina anitzeko taldeak estandarizatzen jarraitzen da, baita, Larrialdiei Aurre Egiteko EAEko Sistemaren barruan, NEBK egoeretan esku hartzeko diziplina anitzeko taldeak estandarizatzen ere. Jarduera konplexuetan parte hartzen duten administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako protokoloak ezartzen jarraitzen da; izan ere,



hitzarmenak sinatu dira honako hauekin: La Caixa, Euskal Gorrak, Repsol, Iberdrola, Intervías, Metro-Bilbao, Enagás, AVEQ-Kimika, EAEko Espeleologoen Elkargoa, EAEko DYA eta EAEko Mendizale Federazioa.

Gainera, abenduaren 20an, Segurtasun Sailak eta Euskadiko Gurutze Gorriaren Batzorde Autonomikoak eguneratu egin zuten bi erakundeek 2011ko urriaz geroztik indarrean zuten lankidetzaren hitzarmena. Horrela, hitzarmen berria indarrean dagoen araudira egokitzeaz gain, Batzordearen programak eta ekintzak Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako EAEko Sistemaren egungo beharrek koordinatuta egon daitezkeen lortzeko ere lagungarria da, arrisku kolektibo larriko, hondamendiko, lazeria publikoko eta abarretako egoeretan.

Maiatzaren 24an, Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, Itsas Salbamendu eta Segurtasunerako Sozietateak (SASEMAR) eta AZTI Fundazioak lankidetzaren hitzarmena berretsi zuten, informazio ozeanografiko eta meteorologikoa elkartrukatzeko, martxoaren 22an protokolo bat sinatu ondoren deitutako lehen jarraipen-batzordean.

Azaroaren 7an, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako Erakundearteko Batzordeak aho batez onartu zuen arrisku erradiologiko, biologiko eta kimikoei buruzko RBQ deskontaminazio-unitateak EAEko hiru lurraldeetan hedatzea eta erabiltzea.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak batzorde ugari hartzen du parte artean, eta horien artean honako hauek nabarmendu behar dira, berritzaileak baitira: Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren Koordinazio eta Segimendu Batzordea eta Garoñako Zentral Nuklearraren Eraisketa-prozesuaren Jarraipenerako Instituzioarteko Batzordea.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat boluntarioen erakundeak dira, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako EAEko Sistemaren ezinbesteko pieza baitira, herritarrek babes zibileko zereginetan duten parte-hartzea bideratzen dutenez. Boluntarioen laguntza desinteresatua, konpromiso handia eta gaikuntza nabarmena lagungarriak dira gure erkidegoak segurtasun-maila handiagoa izateko.

Boluntarioek urtean zehar Euskadin gauzatzen diren jarduerak askotako prebentzio-lanetan parte hartzen dute aldizka.

Istripu, hondamendi edo lazeria publikoetan boluntarioek egiten duten jarduna dagokion agintaritzaren eskudunaren mende egon ohi da, eta oro har, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako EAEko Sistemaren Babes Zibileko Planen eta Taktika Operatiboen araberako herritar-partaidetza eskatzen duten larrialdietan esku hartzen dute.





Trafiko Zuzendaritzak Arku Atlantikoa (3. fasea) eta EU-EIP (European ITS Platform) europar proiektuetan parte hartu du, helburu nagusia Europan zeharreko errepide-sarean ITS (Intelligent Transport Systems) sistemen eta zerbitzuen ezarpena sustatzea izanik. Rotterdamen, Dublinen, Helsinkin eta Anberesen egindako 4 bileratan parte hartu da, eta EBk eta proiektuen idazkaritza teknikoak eskatutako txostenak egin dira.

Gainera, ibilgailu flotatzailearen datuak erabiltzeko proiektuaren (FCD) jarraipen-bilera bat egin da. Besteak beste, horren parte da TomTom enpresak Amsterdamen duen egoitzan dagoen GeoTraffic aplikazioa.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak bere helburuak betetzeko konpromisoarekin jarraitu du, beste segurtasun-eta eragiketa-kidego batzuekin koordinatutako ekintzen bidez lagunduta. Ildo horretan, Eudelekin bilerak egiten jarraitu du: 2019an bi bilera egin dira, ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako lokalei buruzko gai komunak lantzeko.

Gainera, koordinazio-bilerak egin dira hainbat kontseilu eta batzorderekin: COVASAT (1), Ikuskizunen EAEko Kontseilua (1), Jokoaren Batzordea eta Kontseilua (1) eta sailarteko batzordeak (2).

Halaber, lau bilera antolatu ditu diziplina anitzeko lantalde batzuekin, joko-elkarteekin eta kasinoekin, ikuskizunei eta joko arduratsuari buruzko azterketa eta hausnarketa egiteko. Horrez gain, 27 bilera egin ditu enpresa eta joko-elkarteekin, eta sektoreko bi kongresutan parte hartu du Espainiako estatuan: Expo Congreso Andaluz eta FEMARA.



SEGURTASUNA KOORDINATZEKO ZUZENDARITZA

2019an, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak diseinatutako helburuen artean, nabarmentzekoa da, alde batetik, erretiro aurreratuen eraginez udaltzaingoetako plantillek zerbitzua eman ahal izateko gutxieneko langile kopurua bermatzeko beharrari erantzun zaiola. Ildo horretan, Hirugarren Hautapen Prozesu Bateratuari ekin zaio, 26 udalek parte hartu dute bertan, eta 270 lanpostu eskaini dira; halaber, hautaketa-prozedura bat prestatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako (Ertzaintza eta udaltzaingoak) Oinarrizko Eskalan sartzeko; 26 udalek parte hartu dute, eta guztira 110 lanpostu eskaini dituzte udaltzaingoetarako.

Bestalde, 2019ko jazoerarik esanguratsuenetako bat, zalantzarik gabe, ekainaren 27ko 7/2019 Legea –Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketarena– onestea izan da; horrek, gainera, eragin nabarmena izan du udaltzaingoetan. Onartutako lege-berrikuntzen ondorioz, besteak beste, indarririk gabe utzi da udaltzaingoetako bitarteko agenteen poltsa, eta udaltzain laguntzaileen poltsa bat sortzeko deialdia egin behar izan da, EAEko toki-korporazioetan aldi baterako zerbitzua eman dezaten. (Polizia eta



Larrialdietako EAEko Akademiaren zuzendari nagusiaren 2019ko azaroaren 21eko Ebazpenaren bidez) Horren ildotik, udaltzaingoetako bitarteko agenteen beste poltsa bat ere sortu behar izan da (Polizia eta Larrialdietako EAEko Akademiako zuzendari nagusiaren 2019ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez).

Arestian aipaturikoarekin guztiarekin batera eta aurreikusitako beste helburu bat lortzeko (zehazki, udaltzaingoen eta Ertzaintzaren arteko polizia-koordinazioa eta -lankidetzaren indartzea), urtean zehar 14 udalek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta udalen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenak sinatu dituzte, Ertzaintzaren eta udaltzaingoen lankidetzarako hitzarmenak, hain zuzen; hori ez ezik, hitzarmen horiek betearazteko protokoloak ere hasi dira izenpetzen. Orobat, Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeak eta udaltzaingoetako buruzagitzek ere euren urteko bilerak egin dituzte 2019ko abenduaren 19an eta abenduaren 13an, hurrenez hurren.



4. ARDATZA. PRESTAKUNTZA



POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EAE-KO AKADEMIAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

2019ko ekitaldian, PLEAren ikastaro-katalogoan egindako 10.740 matrikulazioetatik (9.100 gizon eta 1.640 emakume), 6.039 (5.208 gizon eta 831 emakume) Ertzaintzako kideenak izan dira, eta 656 (454 gizon eta 202 emakume) XXVIII. Promoziora Sartzeko Ikastaroarenak. Gainerako matrikulazioak eguneratzeko eta perfektionatzeko, informatikako, euskarako, ingeleseko eta abarretako ikastaroen eskaintza zabalari dagozkie. Ertzain bakoitzeko batez besteko prestakuntza-orduak 129,69 izan dira.

Euskadiko udaltzaingoetako ikastaroei dagokienez, Akademiak 2.594 matrikulazio egin ditu (2.136 gizon eta 458 emakume).



ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA

Balioen adierazpena oinarritzat hartuta, Ertzaintzak bere lidergo-eredua finkatu, indartu eta hedatuko du. Eredu hori, zehazki, pertsonen hazkundea sustatzean oinarrituko da, haien autonomia bultzatuta eta erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuta. Arreta berezia jarriko zaio pertsonen ereduaren garapen integratuan izango duten parte-hartzeari. Kualifikazio profesionalaren oinarri izango dira gatazkak ebazten lagunduko duten ezagutza teknikoak eta trebetasun eta gaitasun sozialak; azken batean, langileen jarduna hobetzeko.

Ertzainen lanbide-gaikuntza optimizatzeko, hainbat prestakuntza-jarduera egin dira: sartzeko ikastaroak (XXVII.- XXVIII. Promozioa, 1.025 agente), barne-sustapena (1 ikastaro, 40 agente), espezializazioa (3 ikastaro, 231 agente), eguneratzea eta perfektionatzea (103 ikastaro, 4.034 agente) eta euskalduntzea (5 ikastaro, 157 agente), eta hainbat prestakuntza-jardunaldi (14 jardunaldi, 552 agente). Guztira, 803.680 prestakuntza-ordu eman zaizkie kolektiboko 6.197 agenteren urtean zehar; ertzain bakoitzeko 129,69 ordu, batez beste.

Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planak (2018-2022): lan-ordutegiaren barruan, ertzainen euskarazko hizkuntza-gaikuntzak aurrera jarraitzen du, baita lanpostuko perfektionamendu-ikastaroek ere. Euskarazko prestakuntza lan-ordutegitik kanpo ere ematen da, ertzainek Hizkuntza Eskola Ofizialetan eta/edo euskaltegi homologatuetan egin ditzaketen matrikulazioen bidez.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak etengabe laguntzen dio Polizia eta Larrialdietako EAEko Akademiari larrialdi-zerbitzuetako langileei prestakuntza ematen urte osoan. 2019an, 2.200 pertsona —gehienak Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako EAEko Sistemarekin lotuak— joan ziren zuzendaritza honek emandako 72 ikastaroetako gutxienez batera.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak antolatutako eta/edo emandako ikastaro esanguratsuenen artean, honako hauek nabarmendu ziren: Suteak Itzaltzea, Larrialdietako Bozera mailea, Eguraldi Txarra segurtasunaren ikuspegitik, SOS Deiak APParen hedapena eta Larrialdiei Aurre Egiteko Zerbitzuarekin lotutako askotariko prestakuntza, udaltzaingoetako agenteei eta Ertzaintzaren XXVIII. Promozioiko kideei zuzendua.

Gainera, 2019an bi jardunaldi egin ziren «Autobabeserako EAEko Araua, azken arau-aldaketen ondoren» eta «Alerta Kostaldean» ardatz hartuta; eguraldi txarraren eraginez itsasoak kostaldean sortzen dituen arazo nagusiei buruzkoa izan zen bigarren hori.

Gainera, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak 7 jardunalditan parte hartu zuen. Jardunaldi horietan, besteak beste, honako gai hauek landu ziren: eguraldi txarraren eragina, larrialdiak kudeatzeko ereduak autonomia-erkidegoetan edo larrialdi kimikoetan herritarrekin komunikazioa izateak duen garrantzia.

Azkenik, nabarmentzekoa da Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza lankidetzan aritu zela EAEko Mendizale Federazioak publiko orokorrarentzat zuzendutako 13 hitzaldietan —mendian izan beharreko autobabesari buruzkoetan— (EAEko beste hainbeste udaletan eman ziren hitzaldi horiek).

Aurreko urteetan bezala, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Europako hainbat proiektutan parte hartu du; horri dagokionez, 2019an amaitutako POCTEFA MAREA ekimenean bazkide gisa jardun zuen; itsasoari buruzko jakintza hobetzeko eta horrek gizarteari eragiten dion inpaktua minimizatzeko jomuga izan zuen POCTEFA MAREAK.

Halaber, Zuzendaritza honek «end user» (azken erabiltzaile) gisa laguntzen jarraitzen du PEMEA proiektuan (PAN-EUROPEAN MOBILE EMERGENCY APP), zeinaren helburua baita 112 SOSDeiak aplikazioa Europako beste APP batzuekin bateragarria egitea; horren ildotik, benetako hainbat proba arrakastaz egin dira.

Euskalmet markaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak URBAN KLIMA 2050 proiektuan ere parte hartzen du, laguntzaile gisa. Proiektu horretan hobekuntzak lortu nahi dira neurketa-sistemetan, iragarpen-sistema eta -tresnetan, baita alerta-sistemetan ere. Gainerako bazkide eta parte-hartzaileekin izandako lankidetzak estuari esker, eguraldiari eta klimari buruz behar duten informazioa ematen zaie horiei.

Larrialdietako komunikazioaren kudeaketari buruzko PPRD South III programa europarraren barruan, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako teknikari aditu bat Estatuko Ordezkaritzako kide izan zen azaroan Rabaten (Marokon) arrisku handieneko kolektiboentzako kanpainekin lotutako esperientziak trukatzeko jardunaldi eta lan-mahaietan.





Trafiko Zuzendaritzak, Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoan (2015-2020) jasotako orientabide estrategikoen ildotik, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta kontzientziazioaren esparruan lan egiten jarraitzen du. Helburua mugikortasun segururako hezkuntza sustatzea eta ematea da, eta prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez, bide-ohitura eta -jokabide seguruak eta arduratsuak sustatzea eta bultzatzea.

Zehazki, honako ekimen hauekin jarraitu da: «Te puede pasar/Gerta dakizuke» edo «Teatro Forum»; gainera, prebentzio-estrategia hau indartu da: «Don't be dummy / Para ti no hay repuesto(s) / Zuk ez duzu ordezkorik», Euskadiko ikastetxeetako gidari aurreko gazteei zuzendua. Halaber, Trafiko Zuzendaritzak mugikortasun segururako hezkuntzaren balioak sustatzeko materialak lantzen jarraitzen du hezkuntza-testuinguru ez-formaletan; adibidez, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzako 74.000 eskola-agenda banatu ditu.

«Don't be dummy / Zuk ez duzu ordezkorik» programari dagokionez, 2017an martxan jarri zenetik, 42 udalerritako 138 ikastetxetara iritsi da (6 Araban, 18 Bizkaian eta 18 Gipuzkoan), EAEko hiru hiriburuak barne, guztietan ere ikusle kopuru handiarekin. Guztira 87 ekitaldi programatu dira, eta 22.240 ikaslek parte hartu dute ekitaldi horietan. Orain arte, ikus-entzunezko programaren balantze positiboa egin dute parte-hartzaile horiek. Ekitaldien ondoren egindako inkestaren arabera, 10 parte-hartzailetatik 9k positibotzat jotzen dituzte saioak, eta nabarmendu dute errepideko arriskuez jabetu direla. % 98ren hitzetan, istripuak prebenitzeko neurriak hartuko dituzte.

Gainera, bide-kolektiboen artean prebentzioak duen balioa sustatzeko lan egin da; horretarako, komunikazio-kanpainak eta harrapatzeak prebenitzeko programak egin dira, zeinak arrisku handieneko kolektiboari zuzenduta egon baitira, hala nola «Pausoz pauso / Paso a paso» edo Euskadiko trafikoaren kudeaketa aurreratua egiteko berrikuntza globalari buruzko jardunaldi profesionalak, istripuen prebentzioari buruzko sentsibilizazio-programak eta familien eremuan jokabide seguruak sustatzeko programak, hala nola «Zirkulatzeko Prest». Bestalde, gora egin du bide-prestakuntzaren arloko ikastaroen, kanpainen eta jarduketan kopuruak (irakasleak, gidari-eskolak, etab.), hainbat kanpainaren bidez, hala nola Prest_Gara programan jasotako «Bideetako arriskuen prebentzioa ikasgelan» *online* ikastaroak.

Hori ez ezik, gizarte- eta hezkuntza-eragileen –hala nola udaltzainen, bide-hezkuntzako begiraleen eta Ertzaintzako boluntarioen– eguneroko bizitzan mugikortasun segurua sustatzeko lan egin da.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateko kide berriak (6) prestatzen jarraitu zuen 2019an, besteak beste, joko-makinei eta -sistemei, autobabesari, material piroteknikoari eta informatikari buruz. Era berean, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako langileei zeharkako gaiei buruzko prestakuntza eman zaie, 21 ikastaroren bidez (26 pertsonak hartu dute parte ikastaro horietan).

Gainera, «joko txikiei eta ordutegiei» buruzko prestakuntza eman zen Arkautin. Udaltzainak eta Zuzendaritzako ikuskaritza-unitateko langileak izan ziren prestakuntza horren hartzaileak.



Lokalen segurtasunari buruz joko-enpresei eta ikuskizun-antolatzaileei zuzendutako prestakuntza-ikastaroei dagokienez, Arkautiko akademian bi prestakuntza-jardunaldi egin dira udaletako teknikarientzat; beste bat egin da udaltzaintzat, 17/2019 Erregelamendua aplikatzeari buruz. Beste jardunaldi bat ere egin zen, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, Bizkaiko udalen barnean jaiak eta jolas-jarduerak antolatzeaz arduratzen diren teknikarientzat. Halaber, Zuzendaritzak hizlari gisa parte hartu du ikuskizun publikoetan eta jolas-jardueretan autobabesa gauzatzeari buruz Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak antolatutako bi jardunalditan.



5. ARDATZA. KOMUNIKAZIOA



ERTZAINTZAREN ZUZENDARITZA

Ertzaintzak aitortua izan nahi du, barne-mailan etika profesionala eta jardueren gainbegiratzea sustatzeagatik. Ertzaintzak gizartearekin duen konpromisoa, halaber, gardentasunaren arabera neurtuko da; bai eta euskararen erabileraren aldeko sustapenaren, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta, oro har, giza eskubideekiko errespetuaren arabera ere. Gizartearekin duen harremana elkarlanaren bidez eta elkarren mesederako aliantzak garatuz bultzatuko da; bakearen eta bizikidetasunaren arloan sustatzen direnak barne. Arlo horietan egiten duen ahalegina ezagutzera emateko, Ertzaintzak kanpo-komunikazioko plan bat bultzatuko du.

«Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz» programak, Ertzaintzak polizia-prebentziorako duen ereduaren tresna den aldetik, EAEko herritarrek dituzten segurtasun-beharrei erantzutea du helburu, gizartearen gehiengora ez ezik, gizarte osora ere irits dadin. Ildo horretan, 2019an, Ertzaintzak ahaleginak areagotu ditu askotariko gizartea osatzen duten sektore guztiei arreta emateko, zehazki gutxiengo etnikoekin eta LGTBI komunitatearekin egindako lanaren bidez. Programaren bidez zabalkuntza, lankidetzaz, inklusioa eta bizikidetzaz lantzen dira; hala, programak prestakuntza-bilera ugari barne hartzen ditu eskola eta ikastetxeetan, bai eta aniztasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde lan egiten duten elkarte eta kolektibo sozialekin ere. Guztira 1.390 jarduera egin dira, eta 43.596 pertsonari prestakuntza eman zaie. Zehazki, 26 jarduera egin dira ijitoen komunitatearekin (komunitate horretako 550 pertsonari eman zaie prestakuntza), eta 10 jarduera errefuxiatu eta migratzaileekin (264 pertsonak jasoi dute prestakuntza).



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarentzat, abisu, alerta eta alarmen sistema funtsezko tresna da eguraldi txarrak eragin ditzakeen arriskuak eta kalte pertsonal eta materialak minimizatzeke. 2019an, Segurtasun Sailak 265 abisu hori eta 38 alerta laranja aktibatu zituen, baina alarma gorririk ez. Garrantzitsua da aipatzea egun berean abisu hori bat baino gehiago egon daitezkeela, baita hainbat fenomenorekin lotutako alerta laranja bat baino gehiago ere.

Etengabeko zabalkundeak gizartearen autobabes-mailak handitzen laguntzen du. EAEko herritarrengana berme handinez iristeko, Zuzendaritza honek komunikazio-erreminta hauek erabiltzen ditu:

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak bi kontu aktibo ditu Twitterren: @112_SOSDeiak eta @Euskalmet. 2019an, bi kontu horietatik lorturiko datuak hauek izan ziren: @112_SOSDeiak, 4.265 txio, 32.279 jarraitzaile, webgunerako 120.131 bisitaldi, APParen 20.310 deskarga.

@Euskalmet, 4.740 txio, 114.419 jarraitzaile, webgunerako 10.904.345 bisitaldi.



Zuzendaritza honek, gainera, YouTube plataformako bi kanal ere baditu: 112 SOS Deiak eta Euskalmet. 2019an, 14 hedapen- eta autobabes-bideo egin ziren; horien artean, Segurtasun Sailak koordinatutako simulazioak nabarmendu ziren, baita «Nahierako Abisuak» sistema ezartzeari buruzkoak ere.

Halaber, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako EAEko Sistemari buruzko hedapen-bideo korporatibo bat egin zuen Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak.

Larrialdien munduan funtsezkoa da komunikabide tradizionalekin (prentsa, irratia eta telebista) harreman arina eta erregularra izatea. 2019an, honako erregistro hauek lortu ziren: 52 elkarrizketa prentsan, 116 elkarrizketa irratan, 63 elkarrizketa telebistan eta 52 prentsa-ohar.

Martxoaren 4an, Euskalmet EAEko Meteorologia Agentziak URA Uraren Euskal Agentziak antolatutako «EAEn uholde-arriskuaren Kudeaketa, klima-aldaketa kontuan hartuz» jardunaldian parte hartu zuen, Gasteizen. Jardunaldi hori «Euskadiko Klima Aldaketaren Astea» (Asteklima) programako parte izan zen.

Apirilaren 4an eta 5ean, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, halaber, Espainia osoko 112 zentroetako komunikazio-arduradunen I. topaketan parte hartu zuen. Topaketa hartan, larrialdiei eta babes zibilar buruzko informazioa gizarteari behar bezala helaraztearekin lotutako esperientziak trukatu ziren.

Azaroaren 20an, meteorologian, ozeanografian, itsas zientzietan eta uraren kudeaketan adituak diren hainbat pertsonak «Alerta Kostaldean» jardunaldian parte hartu zuten Donostian. Jardunaldiaren alderdirik garrantzitsuenak honen ingurukoak izan ziren: olatu, ekaitz eta uholdeen eraginpean egon daitezkeen hondartza, portu, errepide eta itsas pasealekuen erabiltzaile eta kosta-kudeatzaileei eguraldi txarrak eta itsasoaren egoerak sortzen dizkien arazoak.



TRAFIKO ZUZENDARITZA

Trafiko Zuzendaritzak herritarrekiko komunikazioa areagotzeko eta optimizatzeko lanean jarraitu du, EAEko bide-sareko trafikoari buruzko arreta zuzena, berehalakoa eta erabakitzailea emateko premisarekin, betiere hainbat tresnarekin, hala nola hauekin: *APP Trafikoa, webgunea, sare sozialak, telefono bidezko arreta 24 orduz, etab.*

Hona hemen 2019ko zenbait datu: 22.735 jarraitzaile izan zituen Zuzendaritzak Twitterren, 92.124 txiorekin; 32.343 kontsultari erantzun zitzaion 011 zenbakian; www.trafikoa.eus webgunerako sarbideen hileko batezbestekoa 126.835 izan zen; Youtuben 620.303 ikustaldi izan ziren, 47 bideo igo ziren eta 248 pertsona harpidetu ziren; APParen 2.301 deskarga egin ziren, 126.835 sarbide izan zituen webguneak hileroko, batez beste.

Gainera, 2019an, Trafiko Zuzendaritzak 3 prentsaurreko egin ditu, 27 prentsa-ohar eman ditu eta komunikabideen 95 eskaera izapidetu ditu. Horrez gain, honako gai hauei buruzko kanpainak zabaldu dira: «Gidatu, besterik ez / Elige conducir» (Alkohola eta drogak), «Gidatu, besterik ez / Elige conducir» (Distrakzioak, abiadura, alkohola eta drogak), «Trafiko-gomendioak, Biarritzeko G7 gailurra dela-eta», «Trafiko-istripuen biktimak oroitzeko munduko eguna», «Bide-bizikidetzari buruzko jardunaldia Euskadin mugikortasun segurua izateko».



Komunikabideekin etengabeko harremana mantentzen da, EAEko bide-sarean gertatzen denari buruzko informazio zehatza emate aldera.

Gainera, Trafiko Istripuen Biktimen EAEko Erregistroa prestatzea ezarri da, lurraldeko bideetan segurtasuna eta herritarrei emandako informazioa bermatzen lagunduko duten adierazleak edukitzeko. Erregistro hori martxan dago jada.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

Joko arduratsuari buruzko zabalkuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak egin dira hainbat forotan eta hainbat eragileren lankidetzarekin: Euskal Foroa, Ertzaintza, ASAJER, Family Word.



ARRISKUAK EUSKADIN

Planaren xede diren arriskuak hiru motatan sailka daitezke, jatorriaren arabera:

- a) **Naturalak:** gizakiaren presentziak edo jarduerak zuzenean eragiten ez dituenak, faktore geologiko edo klimatikoek baizik.
- b) **Antropikoak:** giza ekintzek edo jarduerak eragindakoa edo horietatik eratorritakoak.
- c) **Teknologikoak:** garapen teknologikoaren eta teknologien erabilera esanguratsuaren ondoriozko arrisku antropikoak.

Atal honen funtsa da EAEko segurtasunari bereziki eragiten dioten eta ekintza-ildo estrategiko zehatzak ezartzea eskatzen duten arriskuak zein diren finkatzea. Horregatik, arriskuak definitu ziren 2014-2019 aldirako Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra lantzeko orduan, Euskadiko Babes Zibileko Planean jasotako arriskuen analisiari eta Euskadiko delinkuentziaren analisiari –segurtasunean duen eraginaren arabera– jarraikiz (*baliabideen banaketaren azterketa, kontrolari, arretari eta prebentzioari begira*).

Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra segurtasunaren ikuspegi integrala aurkezten saiatzen da, arriskuen analisiaren emaitzetan oinarrituta haren helburuak eta ekintza-ildoak definituz, zehaztutako bost ardatz estrategikoen ikuspegitik.

Hautemandako arriskuei aurre egiteko, estrategia proaktibo batek arrakasta izateko aukera handiagoa ematen du. Helburua giza kaltearen, egitura-kaltearen eta kalte ekonomikoaren ondorioak murriztea da, delitu-ekintzei eta ekintza kaltegarriari beraiei soilik begiratu ordez, arazoaren sustraietara joz. Euskadin segurtasunarekin zerikusia daukaten sailek gatazka baten fase guztien gainean lan egiten dute: prebentzioa, babesa, erantzuna eta lehengoratztea. Segurtasun-politikek ikuspegi integral bat hartu behar dute, erakunde, profesional eta herritar guztiak barne hartzen dituen eta beste sektore batzuekin, esaterako, hezkuntza sektorearekin, lankidetzan aritzen dena, delituzko jokabideak gara ez daitezken. Ikuspegi hori zabala, pragmatikoa, malgua eta errealista ere izan behar da, une oro errealitatera egokituta egoteaz gain. Halaber, herritarrei eragin diezaieketen arriskuak, hau da, segurtasun-arloko arazo bat sor dezaketena, kontuan hartu behar ditu herritarrei segurtasun-mailarik altuenak bermatzen saiatzeko.

Jarraian, arrisku bakoitzeko (*plana egitean detektatutakoak*) ekintzak deskribatzen dira, ESPPO artikulatzen duten ardatzen arabera antolatuta:



1. ARDATZA
HERRITARREI ZERBITZUA
EMATEA

2. ARDATZA
PLANGINTZA

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

TERRORISMOA

- Delitu-analisirako tresna ezarri da
- Ziberkrimenari eta terrorismoari aurre egiteari begira muturreko datu-fluxuak aztertzeko, PREVISION proiektua abiaraztea
- Antolaketa-egitura osoan adimen-eredu integral bat ezartzea
- Terrorismo-arriskua aldizka ebaluatzea
- Islamismo Erradikalaren aurkako Plan Estrategikoaren jarraipena
- Informazioa elkartrukatzea beste polizia-kidego batzuekin
- Ertzaintza Global Shield Network-en integratzea. Sare horren helburua polizien eta erakunde publiko eta pribatuen arteko aldebiko lankidetzak gauzatzea da, terrorismoaren aurkako borrokan
- Euskadin fenomeno terroristaren aurrean jarduteari begira jarraibideak bateratzeko prestakuntza-jardunaldiak
- Adituekin jardunaldiak antolatzea, ideiak eta esperientziak partekatzeko



ZIBERRARRISKUAK

1. ARDATZA
HERRITARREI ZERBITZUA
EMATEA

- Informatikarekin, Internetekin eta abarrekin lotutako delituei buruz aurkeztutako salaketak ikertzea.
- Ziberkrimenari eta terrorismoari aurre egiteari begira muturreko datu-fluxuak aztertze, PREVISION proiektua abiaraztea
- Nortasun birtuala kudeatzeko prozesuen bidez pribatutasuna errespetatzen eta segurtasun fisikoa bermatzen duen ARIES proiektua –egiaztagiri seguruei buruzkoa– amaitu da

2. ARDATZA
PLANGINTZA

- Informazio-sistemen komunikazio-sareen osotasuna, konfidentzialtasuna erabilgarritasuna bermatzeko neurriak garatzea
- Azpiegitura babesteko ikuskatzea kritikoak jarduerak

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

- Ziberdelinkuentziari aurre egiteko Europako proiektuetan parte hartzea
- Ertzaintzaren presentzia Basque CyberSecurity Centren

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

- Hitzaldiak egitea ikastetxeetan, ziberjazarpena prebenitze aldera
- Ertzaintzaren Ikastaroak: Informatika Delituak Oinarrizko Ikerketa

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

- Delitu informatikoei buruz informatzea eta/edo ohartaraztea komunikabideen bidez



1. ARDATZA
HERRITARREI ZERBITZUA
EMATEA

2. ARDATZA
PLANGINTZA

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

DELINKUENTZIA

- Herritarren segurtasunaren arloko legeria aplikatzea.
- Landa-inguruneari Arreta emateko Plana abian da
- Delitu-analisirako BAIETZ tresna ezarri da
- Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateko esku-hartze azkarrerako ontzi berria
- Joko eta ikuskizunei buruzko plan estrategikoetan proposatutako hobekuntza-neurriak garatzea
- Gorroto-delituei buruzko datuak biltzeko sistema mantentzea
- Epailletza, Fiskaltza eta Ertzaintza Koordinatzeko Lantaldearen Bilerak
- Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde Mistoen bilerak
- Ertzaintzaren parte-hartzea berrikuntza eta ikerketarako H2020-EB programetan
- Udalekin lankidetzahitzarmenak ezartzea
- Tetra-ENBOR SAREA lankidetzahitzarmena
- Lantaldeak EUDELeKin segurtasun-alorrean
- Lankidetzahitzarmenak Buenos Aires probintziarekin, Anberesekin eta Bavariarekin
- Delinkuentzia arruntari, sektorialari eta gorabideko delituei buruzko prestakuntza-ikastaroak, Ertzaintza eta udaltzaingoak
- Segurtasun Publikoaren informazio estatistikoa zabaltzea
- «Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz» programa, gizarte osoari zuzendua



LARRIALDIAK
ETA
HONDAMENDIAK

1. ARDATZA
HERRITARREI ZERBITZUA
EMATEA

- Herritarrekin erlazionatzeko moduen bilakaera, teknologia berrien bitartez
- «Nahierako» sistema bat martxan jartzea; sistema horren bidez, herritarrek abisu-prozedura bati atxikitzeko aukera dute, hautatu dituzten arrisku edo eremu jakin batzuetan oinarrituta.
- EAEko herritarren autobabesaren sustapenean aurrera egitea; arrisku natural edo teknologikoei buruzko informazioaren bidez lan egiten jarraitu da.

2. ARDATZA
PLANGINTZA

- 2019. urtean, aurreko urteetan bezala, zenbait jardura egin ditu, eta honako puntu hauetan labur daitezke jardura horiek: 7 urtegi-plan onestea; Itsasertzaren Kutsadurari Aurre Egiteko Euskadiko Larrialdi Plan Berezia (Itsasertza) onesteko prozedura.
- INGENIUS proiektuari hasiera ematea, mota guztietako hondamendietan erantzuteko gaitasuna handitzearen eta erantzuntaldean autobabesa ziurtatzearen

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

- Euskadiko larrialdietarako eta segurtasunerako gune operatiboen eta zentralaren artean komunikazioak txertatzea eta komunikazio horiek etengabe hobetzea
- Toki-agintariekin lankidetzan jarraitzea eta udalerrri batzuetako larrialdi-planak gainbegiratzea
- Simulazioak koordinatzea eta ekitaldi berezietan parte hartzea, gero eta garrantzi eta konplexutasun handiagoa baitute halakoek gure lurraldean
- Boluntarioak inplikatzeko, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako EAEko Sistemaren ezinbesteko pieza baitira, herritarrek babes zibileko zereginetan duten parte-hartzea bideratzen dutelako

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

- Larrialdien eta hondamendien arloko prestakuntza- eta ikerketa-foro teknikoak garatzea
- Larrialdi eta hondamendietan parte hartzearekin lotutako kolektibo jakin batzuentzako prestakuntza-ekintza ugari antolatzea eta horietan parte hartzea
- Estatuko eta Europako proiektuetan parte hartzea: Marea proiektua, Urban Klima proiektua, PPRD South III eta PEMEA (Pan-European Mobile Emergency Application)

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

- Euskalmeten irismen publikoa indartzea (komunikabideak)
- Etengabeko presentzia sare sozialetan
- Mugikorretarako APP aplikazioak garatzea



AZPIEGITURA
KRITIKOEN ETA
FUNTSEZKO
ZERBITZUEN
URRAKORTASUNA

1. ARDATZA
HERRITARREI ZERBITZUA
EMATEA

- Sistema erredundanteak ezartzea, sistemen jarraitutasuna bermatzeko
- Gasteizko Boulevard merkataritza-gunean jarduketa-simulazio bat egin zen: arma eta lehergailuen bidez biktima ugari eragiten dituen eraso terrorista jihadistista bat
- Autobabeserako EAEko Arauaren eraginpeko 1.057 establezimenduren larrialdiak kudeatzeko datu esanguratsuak inskribatu edo eguneratzeko ekintzen gorakada Autobabes-planen erregistro orokorra.

2. ARDATZA
PLANGINTZA

- Euskadiko Funtsezko Azpiegiturak eta Zerbitzuak Babesteko Plana garatzea
- Azpiegitura Kritikoan Laguntza Operatiborako Planak (LOP) lantzea

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

- Sailarteko lantaldeak abiaraztea, babes-jarduerak koordinatzeko eta gainbegiratzeko

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

- Funtsezko zerbitzuetako arriskuen aurrean segurtasun-neurriei buruzko prestakuntza ematea (neurri teknikoak, antolakuntza-neurriak, etab.)
- Gai horrekin lotutako kolektibo jakin batzuentzako prestakuntza-ekintza ugari antolatzea eta horietan parte hartzea

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

- Enpresekin bilerak egitea, dela interesatzen zaielako dela arriskuan daudelako hala eskatzen badute

INDARKERIA
SEXISTA1. ARDATZA
HERRITARREI ZERBITZUA
EMATEA

- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta arretari buruzko protokoloak eta prozedurak aztertzea, hobekuntza posibleak detektatzeko aldera
- Tratu txarren biktimak diren emakumeei buruzko jarraipen-txostenak garatzea
- Sexu-esplotaziorako Gizaki-salerosketaren aurkako Plana ertzain-etxe guztietan finkatzea eta areagotzea.

2. ARDATZA
PLANGINTZA

- berdintasun-politikak eta lana eta familia bateragarri egiteko politikak sustatzeko ekintzak zertzea
- Genero-indarkeriaren arloan egindako lanak eta taldeak mantentzea

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

- Erakundearteko genero-indarkeriari buruzko protokoloak:
- Udalak, Ertzaintza, Mankomunitateak, Osakidetza, etab.
- Saileko Talde Teknikoaren aldizkako bilerak
- Ertzaintzako Berdintasun-lantaldearen bilerak
- Udaltzaingoen Berdintasun-lantaldearen bilerak
- EBA proiektu estrategikoa abiarazi da, Ertzaintzak eta udaltzaingoen GI/Elri buruzko informazioa modu partekatuan trata dezaten

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

- Genero-indarkeriari buruzko informazio-hitzaldiak herritarrei eta profesionalen kolektiboari
- Ertzaintzaren ikastaroak: GI/Elren prebentzio psikoedukatiboa, Emakumeen aurkako indarkeria (JABETUZ) *online* prestakuntza

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

- Genero-indarkeria minimizatzeko informatzea, arriskua prebenitzeko, ezagutarazteko eta azaltzeko
- Bileretara joatea eta Ertzaintzan bultzatzea Sailarteko Talde Teknikoaren dinamika



BIDEETAKO
EZBEHAR-TASA

- Herritarrekin erlazionatzeko modu berriak garatzea
- Informazio-sistemak abiaraztea, datuak bildu eta trukatzeko
- Trafikoa eta errepideak ikuskatzeko, beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea
- Orientazio estrategikoen ildoan, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta kontzientziazioaren alorrean lan egiten jarraitzen da. Helburua mugikortasun segururako hezkuntza sustatzea eta ematea da, baita prestakuntza-ekintzen eta sentibilizazio-ekintzen bidez bide-ohitura eta -jokabide seguruak sustatzea eta bultzatzea ere, gidari gazteen artean, Euskadiko ikastetxeetan eta ikastetxe ez-formaletan, arriskuan diren kolektiboetarako komunikazio-kanpainez eta harrapaketak prebenitzeko programez gain
- Herritarrekiko komunikazioa areagotzeko eta optimizatzeko lanean jarraitu da, EAEko bide-sareko trafikoari buruzko arreta zuzena, berehalakoa eta erabakitzailea emateko premisarekin, betiere hainbat tresnarekin, hala nola hauekin: APP Trafikoa, webgunea, sare sozialak, telefono bidezko arreta 24 orduz, etab.
- Teknologia berrien arloan presenteago egotea (sare sozialak, 011 telefono-zenbakia eta webgunean)
- Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko 2015-2020 aldirako Plan Estrategikoa garatzea
- Udaltzaingoen Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzan egindako kanpainak, bide-segurtasunari buruzkoak
- Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoaren (2015-2020) Bitarteko Ebaluazioan ezarritakoari jarraikiz, hainbat kolektibotan zirkulazio-istripuak prebenitzeko kontzientziatio- eta sentibilizazio-helburuak lantzen jarraitu da, betiere arrisku handieneko taldeei arreta berezia eskainita (txirrindulariei, motorzaleei eta oinezkoiei).
- Europar zeharreko errepide-sareak egindako 4 bileratara joan da eta EBk eta proiektuen idazkaritza teknikoak eskatutako txostenak egin dira.
- Trafiko Istripuen Biktimen EAEko Erregistro bat ezarri da, lurraldeko bideetan segurtasuna eta herritarrei emandako informazioa bermatzen lagunduko duten adierazleak edukitzeko. Erregistro hori martxan dago jada.
- Euskarri zabaltzea Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentrorako
- Bide-prestakuntza maila guztietan, mugikortasun seguruan oinarritua
- Ertzaintzaren Trafikoko Ikastaroak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



JARRAIPENA ETA BALIOESPENA

Planaren ebaluazioa helburu estrategikoen lorpenei begira egiten da, helburu bakoitzaren esparru propioen hobekuntzan ekintzek izan duten eraginari begiratuta, eta ez ekintzen burutzapenari dagokion kuantifikatutako jarraipenari.

Plan honek biltzen dituen helburu eta erantzukizun bakoitzaren betetze-maila metodo eta estrategia berezien bidez ebaluatuko da, eta horien arabera ebatziko da planaren aurrerapen-maila zein den.

Hori dela eta, ildo estrategikoetan lortutako emaitzen jarraipena egingo da, helburuen betetze-mailan izan litezkeen desbideratzeak hauteman eta aurreikusteko eta ondorioz, jardueretan egin beharreko hobekuntzak identifikatzeko.

Jarraian hainbat adierazle aurkeztuko ditugu, eta horien bidez, plana martxan jartzean betetze-maila zein izan den zehaztu ahal izango da.

Azken bi urteotan, lortutako datuak aztertzeko prozeduren ondorioz, hauteman da adierazle batzuek ez zutela jardueren betetze-maila ebaluatzeko behar beste informaziorik ematen eta horregatik, adierazle batzuen ordez beste batzuk jarri dira, aztertutako aldian lortutako aurrerapenari buruz behar besteko zehaztasuna emango dutenak.



1. ARDATZA. HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	2019. BALIOA
1.1 IE: ERTZAINZAK AINTZATESTE SOZIAL HANDIA LORTZEA, ZERBITZUAREN HURBILTASUN ETA EFIKAZIAGATIK			
1.1.1. Euskadiko lurralde osoan ertzain uniformatuen presentzia areagotzea	Landa-ingurunean edo hirigunea ez den eremuan segurtasun-neurriak ezartzea	Ertzaintzaren Zuzendaritza	Landa-inguruneari Arreta emateko Plana abian da
1.1.2. Segurtasun-sentsazioa handitzea	Prebentzio-zerbitzuko denbora handitzea Prebentzioko denbora guztiaren gainean, korrikaldi kopurua handitzea Prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak sustatzea		% 62,75 % 20,12 1.390 prestakuntza-jarduerak
1.1.3. Herritarrekin konfiantza- eta lankidetzaharremanak ezartzea eta arreta pertsonalizatua hobetzea	Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea Ertzain-etxeetako arreta pertsonala hobetzea Ertzaintzarekiko konfiantza-maila handitzea (DeustoBarometro Soziala) Ertzaintzak eskainitako polizia-zerbitzuen balorazioa handitzea Ertzaintzari planteatzen zaizkion arazoak konpontzeari dagokionez, gogobetetze-mailaren balorazioa handitzea Ertzain batengana gerturatzeko erraztasunari buruzko balorazioa handitzea Ertzaintzako agenteen profesionaltasunari buruzko balorazioa handitzea Ertzaintzaren adeitasunari buruzko balorazioa handitzea Ertzaintzaren hurbiltasunari buruzko balorazioa handitzea Ertzaintzak emandako tratuari buruzko balorazioa handitzea Segurtasun-mailaren balorazioa handitzea «Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz» hitzaldietako parte-hartzaileen kopurua handitzea		157 agente 1. HEko 60 agente eta 2. HEko 97 agente 145.444 pertsonari arreta eman zaie DeustoBarometro 5,52/10 (2019ko negua) 7,24/10 (2017) - 7,48 /10 (2019) 6,97/10 (2017) - 7,26 /10 (2019) 7,46/10 (2017) - 7,79 /10 (2019) 7,29/10 (2017) - 7,61 /10 (2019) 7,20/10 (2017) - 7,46 /10 (2019) 7,11/10 (2017) - 7,52 /10 (2019) 7,68/10 (2017) - 8,00 /10 (2019) 7,15/10 (2017) - 6,93 /10 (2019) 43.596 (2018-2019 ikasturtea)



HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	2019. BALIOA
	Komunikazioaren bidezko prebentzioari buruzko hitzaldietan parte hartzen dutenen gogobetetze-maila handiagoa lortzea		4,35 (1-5 eskala)
1.1.4. Herritarrengana hurbiltzea	Ertzain-etxeak aldatzea eta herritarrei arreta emateko zentro eroso, adeitsu eta funtzional bihurtzea		Erandioko ertzain-etxea birmoldatzea
	Herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza-eskubideak bermatuta une oro, Ertzaintzan euskara erabiltzeko planak xedatzen duena betez		Euskararekin loturiko 12 kexa
1.1.5. Herritarrek parte hartzea zerbitzuen diseinuan	Erakunde publiko eta pribatuekin eta gizarte-ordezkariekin lankidetzak ezartzea		28 aliantza formalizatu dira
1.1.6. Gardentasuna eta ekitatea bultzatzea gizartearekiko harremanetan	Tratu- eta aukera-berdintasuna sendotzea eta aniztasuna eta desberdintasuna errespetatu beharra indartzea, gizarte-aldaketak babestu eta pertsonarekin eta haren eskubideekin izan beharreko errespetua bermatze aldera		187 prestakuntza-jarduera ijito-herriarekin, desgaitasuna duten pertsonekin eta etorkinekin 5.208 pertsona prestatu dira
1.2 IE: PREBENTZIO AKTIBOAN OINARRITUTAKO ZERBITZUA ESKAINTZEA, INTELIGENTZIA ETA IKERKETA KRIMINALAREN LAGUNTZAREKIN			
1.2.1. Herritarrak barne hartzea prozesuen zati nagusi gisa	Biktimari ematen zaion arreta pertsonalizatua hobetzea eta kasuen jarraipena egitea	Ertzaintzaren Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> Ertzaintzaren datuen arabera, biktimen kopurua: 92.423 Ertzaintzaren datuen arabera, biktimen kopurua: 80.586 Istripuei buruzko txostenen kopurua: 5.486
1.3 IE: HERRITARRENTZAKO ARRETA HOBETZEA, BAITA HORIEN ESTABLEZIMENDUETAKO SEGURTASUN-BALDINTZAK ERE			
1.3.1. Europar Batasunaren «alderantzizko 112» sakontzea	112 SOS Deiak Twitterreko jarraitzaileen kopurua handitzea Argitaratutako txioen kopurua handitzea euskadi.net/112 webgunera egindako bisitaldien kopurua handitzea GIS korporatiboa zerbitzu operatiboetarako	LAEMZ	32.279 jarraitzaile
			63.502 txio
			1.583.035 bisitaldi
			Burutzen. Lanak martxan daude, programazioaren arabera
	112aren bidez artatutako dei kopurua handitzea		807.305 deiri arreta eman zaie
	112an gorabehera gehiago kudeatzea		Kudeatutako 207.664 gorabehera
	112 SOS Deiak APParen deskarga aktiboak		20.310 deskarga aktibo



HELBURUAK

EKINTZAK

ARDURADUNA

2019. BALIOA

1.3.2. Teknikari eskudunak gaitzeko agindua kudeatzea

Polizia eta Larrialdietako EAEko Akademian akreditatutako teknikari gaituentzako prestakuntza-ikastaroak
Gaikuntzen kontrola

Akreditatutako 2.108 teknikari (beste ikastaro batzuk barne hartuta)

8 ebaluazio-batzorde bete dira

1.3.3. Autobabes-planak bultzatzea eta horiek larrialdi-zerbitzuei banatzea

Erregistratutako autobabes-planen kopurua handitzea
Autobabes-plan gehiago homologatzea

Erregistratu eta baliozkotutako jardueren 1.223 plan erregistratu eta baliozkotu dira

Otsailaren 12ko 21/19 Dekretua indarrean jarri zenez geroztik, homologazioaren figura desagertu egin da.

1.4 IE: IKUSKIZUN ETA JOLAS-JARDUERETARAKO LOKALEN SEGURTASUNA HOBETZEA

1.4.1. Toki-erakunde eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren arteko eskumenak banatzeko mekanismo argiak ezartzea

EUDELekin lantaldeak sortzea bultzatzea, bileretan gai komunei buruz hitz egiteko

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

2 bidera EUDELekin, bat otsailaren 25ean eta beste bat martxoaren 6an.

1.5 IE: INDARKERIA, ARRAZAKERIA- ETA XENOFOBIA-ADIERAZPENAK ETA, ORO HAR, INTOLERANTZIA-JOKABIDEAK DESAGERRARAZTEA KIROLEAN

1.5.1. Eragile guztien sentsibilizazioa

Kirolean indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta intolerantziaren aurka borrokatzea, eta horretarako EJKo Segurtasun Sailaren eta kirolaren arloko klub, sozietate anonimo eta federazioen arteko lankidetzaren protokoloak sinatzea

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Kirol-ikuskitan, Euskal Selektzioaren partidetan, arrisku handiko partidetan eta abarretan joko «garbia» eta jarrera arduratsua sustatzeko kanpainekin jarraitzen da; 04/17an bilera Anoetan

Foroak bultzatzea eragile guztiekin

Lankidetzaren Ertzaintzarekin eta Kirol eta Jarduera Fisikoaren Zuzendaritzarekin (02/13 eta 03/27) Indarkeriaren Aurkako EAEko Batzordean parte hartzea (02/06 eta 10/30); bilera otsailaren 19an

119 espediente

Indarkeriazko jokabideak edo portaera intoleranteak gertatzen direnean, pertsona edo erakunde erantzuleak zigortzea

1.6 IE: KANPOKO ERAGILEEKIN LANKIDETZAN ETA KOORDINAZIOAN ARITZEA

1.6.1. Beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan aritzea eta bere lanak kanpo agenteekin koordinatzea trafiko eta errepideen arloan bide-segurtasuna

EAEko udalekin lankidetzan aritzeko mekanismoak ezartzea eta bultzatzea

Trafiko Zuzendaritza

- 4 udalek zehapen-eskumena bere gain hartzea
- Ibarrangelu, Kanpezu eta Urretxuko bide-segurtasuneko udal-planen aurkezpena
- Mugikortasun seguruko planak Bakion, Eltziegion eta Zaldibian



HELBURUAK

EKINTZAK

ARDURADUNA

2019. BALIOA

kontrolatzeko eta zaintzeko duen eginkizuna betetzeko

Europar zeharreko errepide-sarean trafiko-informazioa trukatzeko gauzatzen diren erabaki eta ekitaldietan lankidetzan aritzea eta parte hartzea

Rotterdam, Dubline, Helsinkin eta Anberesen egindako 4 bileratan parte hartu da, eta EBk eta proiektuen idazkaritza teknikoak eskatutako txostenak egin dira

1.7 LE: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN PREBENTZIOA

1.7.1. Segurtasun-politiken esparruan ezartzea emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren arloko berdintasun-planaren ildo estrategikoak

Indarkeriaren biktimei informazioa ematea haien babesa bermatzen duten segurtasun-zerbitzu eta -neurriei buruz (bortxa telefonoa) eta gauzatzen ari diren espedienteen jarraipena egitea

Ertzaintzaren Zuzendaritza

- 2019/12/31n abian dauden Elko/Glko espedienteak: 5.003
- 2019/12/31n Elko/Glko espedienteetan bilduriko biktimak: 5.829
- 2018/12/31n Elko/Glko espedienteetan bilduriko emakumezko biktimak: 4.801
- 445 bitarteko teknologiko (Bortxa APPa + erregistratuak)

1.8 LE: AZPIEGITURA KRITIKOAK ETA FUNTSEZKO ZERBITZUAK BERMATZEA

1.8.1. Euskadirako funtsezkoak edo garrantzitsuak diren azpiegitura kritikoak eta zerbitzuak identifikatzen aurrera egitea

Euskadirako kritikoak diren azpiegiturak eta funtsezkoak eta esanguratsuak diren zerbitzuak identifikatzeko eta horiei jarraipena egiteko sistema bat ezartzea

Ertzaintzaren Zuzendaritza

Burutzen. Lanak martxan daude, programazioaren arabera

